Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2017ko uztailaren 19a, asteazkena — 138 — Miércoles, a 19 de julio de 2017



## ORIOKO UDALA

*Behin betiko onarpena ematea Orioko Gazteen aisialdirako lokalei buruzko udal ordenantzari.*

Orioko udalbatzarrak, 2013ko urriaren 31n egindako ohiko bilkuran, lehen onarpena eman zion Orioko Gazteen aisialdirako lokalei buruzko udal ordenantzari.

Ordenantza hori hogeita hamar laneguneko epean jarri zen jendaurrean, 2013ko azaroaren 7an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren 212 zenbakian argitaratutako iragarkiaren bidez. Jendaurreko epean idatzi bakarra aurkeztu zen, udal ordenantza horren testuan hainbat hobekuntza egitea proposatzen zuena; idatzia Jexus Mari Arriaran Elkorobarrutiak aurkeztu zuen.

Orioko udalbatzarrak, 2015eko martxoaren 31an egindako ezohiko bilkuran, ondorengo erabakia hartu zuen:

1. Aintzat hartzea osorik Jexus Mari Arriaran Elkorobarrutiak Orioko gazteen aisialdiko lokalak arautzen dituen udal ordenantzaren testuari egindako oharrak, Kirola eta Gazteria batzorde informatzaileak 2015eko martxoaren 26an emandako diktamenaren arabera.

2. Behin betikoz onartzea Orioko gazteen aisialdiko lokalak arautzen dituen udal ordenantza, Jexus Mari Arriaran Elkorobarrutiak egindako oharrak gehituta.

3. Agintzea udal ordenantza hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, dagozkion lege-errekurtsoak adieraziz, indarrean sar dadin.

Beraz, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, iragarki honetan Eranskin gisa argitaratzen da aldatutako artikuluaren testua; testua ez da indarrean sartuko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamabost lanegunetako epea iragan arte.

Administrazio-bidean behin betikoa den akordio honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da euskal autonomia erkidegoko auzitegi nagusiaren administrazioarekiko auzietako salaren aurrean, iragarkia argitaratzen den hurrengo egunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

Hala ere, aldez aurretik, udalbatzarraren aurrean aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, hilabeteko epean, iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Kasu honetan ezingo da administrazioarekiko auzietako helegiterik aurkeztu berraztertzeko errekurtsoa erabaki arte edota presuntziozko ezespena eman arte.

Hori guztia egoki irizten diren beste edozein errekurtso jartzeko kalterik gabe.

## AYUNTAMIENTO DE ORIO

*Aprobación definitiva de la Ordenanza Municipal sobre los locales para ocio de jóvenes de Orio.*

El Pleno de este Ayuntamiento, en sesión ordinaria celebrada el día 31 de octubre de 2013, acordó aprobar inicialmente la Ordenanza Municipal sobre los locales para ocio de jóvenes de Orio.

Habiéndose sometido dicha Ordenanza al trámite de exposición pública por el plazo de treinta días hábiles mediante anuncio publicado en el Boletin Oficial de Gipuzkoa n.º 212 de fecha 7 de noviembre de 2013. Durante el período de información pública se presentó un único escrito por parte de Jexus Mari Arriaran Elkorobarrutia, en el que solicita la modificación parcial del texto de la ordenanza municipal de referencia, incorporando las mejoras planteadas por el compareciente.

El Pleno de este Ayuntamiento, en sesión extraordinaria celebrada el día 31 de marzo de 2015, acordó lo siguiente:

1.º Estimar integramente las observaciones formuladas por Jexus Mari Arriaran Elkorobarrutia, a la vista del dictamen emitido por la Comisión Informativa de Deportes y Juventud, en sesión celebrada el día 26 de marzo de 2015.

2.º Aprobar definitivamente la ordenanza municipal reguladora de los locales para ocio de los jóvenes en el municipio de Orio, con la incorporación en la misma de las observaciones formuladas por Jexus Mari Arriaran Elkorobarrutia.

3.º Ordenar la publicación de la citada ordenanza municipal en el Boletin Oficial de Gipuzkoa, con indicación de los recursos legales procedentes, a los efectos de su entrada en vigor.

En consecuencia, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley 771985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, a continuación se procede a publicar como Anexo a este anuncio el texto del artículo modificado de la citada Ordenanza, con la indicación de que no entrará en vigor hasta que se haya publicado el texto en el Boletin Oficial de Gipuzkoa y haya transcurrido el plazo de quince días hábiles.

Contra el acuerdo municipal que es definitivo en vía administrativa, podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la publicación.

No obstante, con carácter previo, podrá interponerse recurso potestativo de reposicion ante el Pleno de este Ayuntamiento, en el plazo de un mes, a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta.

Todo ello sin perjuicio de que pueda ejercitar cualquier otro recurso que se estime procedente.

EK\CV GAO-I-2017-05214

ERANSKINA

ORIOKO GAZTEEN AISIALDIRAKO LOKALEI BURUZKO UDAL ORDENANTZA

I. KAPITULUA

EZARPEN EREMUA

*1. artikulua. Xedea.*

Ordenantza honek Orioko gazte lokalen erabilera arautzea du xede.

Nagusiki, honako helburuak lortu nahi ditu Udalak ordenantza honen bidez:

a) Gazte lokalek gutxieneko baldintzak bete ditzaten ziurtatzea alor hauetan: bizigarritasuna, higienea, erosotasuna, segurtasuna.

b) Gazte lokalen erabilera eta auzotarren eskubideak uztartzea, dagozkion neurri zuzentzaileak hartuta.

c) Gazte lokaletan sor daitezkeen arazoak murriztea eta bizikidetasuna bultzatzea.

*2. artikulua. Definizioa.*

Gazte lokalak sarrera mugatua duten gune pribatuak dira, eta ez daude mundu guztiarentzat zabalik. Eraikinetako etxabeetan egon ohi dira gehienetan lokalak. Gazteek aisialdirako erabili ohi dituzte, erreferentzia-gune dira haientzat eta lagunekin elkartu eta egoteko erabiltzen dituzte.

*3. artikulua. Ordenantzaren aplikazio-eremua.*

Ordenantza honek Orioko bizitegi-erabilerako eremuetan dauden lokaletan izango du eragina eta baita industrialdean egon daitezkeenetan ere. Ordenantza hau kontuan hartu beharko da, hortaz, bai irekiko diren lokal berrietarako eta bai gaur egun daudenak egokitzeko.

*4. artikulua. Erabilera.*

a) Lokal hauek etxebizitzetako etxabeetan kokatutako zentro asoziatiboak direnez, ezingo dute dantza, kantu edo musika profesionalaren jarduerarik eduki. Ezingo dute, ezta ere, gazteen aisialdiarekin zerikusi zuzena ez duten jarduerarik burutu, eta ezta gogaikarriak direnak edo legez debekatuta daudenak ere.

b) Araudi honetatik kanpo geldituko dira, berariaz, ostalaritzako jarduerak, hala nola zirkuetan, barraketan, txosnetan eta txoko gastronomikoetan kokatutako taberna, kafetegi edo jatetxe zerbitzuak.

c) Debekatuta egongo da lokal hauetan:

c1) Auzotarrei gogaikarri zaizkien jarduerak edota eraikinaren segurtasuna arriskuan jartzen dutenak egitea.

c2) Sukaldea jartzea.

c3) Era guztietako erregaiak biltegiratzea. Berogailuetarako erregairik ez erabiltzea gomendatzen da.

c4) Ezer saltzea edo erostea lokal hauetan.

*5. artikulua. Hartzaileak.*

1. Gazteak: Ordenantza honen bidez, gazte lokalek dituzten baldintzak hobetu nahi ditu Udalak. Lokaletako erabiltzaile eta errentari diren aldetik, gazte hauek dituzten eskubideak ezagutu eta gauzatu ditzaten lortu nahi du. Beste alde batetik, jarduera horretan dituzten betebehar eta ardurak ezagutu behar dituzte gazte hauek.

2. Auzotarrak: Zarata izan ohi da lokalen erabiltzaileen eta auzo elkartearen arteko gatazka-iturri nagusia. Lokal hauen inguruan sortzen den zikinkeria ere izan daiteke gatazka-eragile

ANEXO

ORDENANZA MUNICIPAL SOBRE LOS LOCALES PARA OCIO DE JÓVENES DE ORIO

CAPÍTULO I

ÁMBITO DE APLICACIÓN

*Artículo 1. Objeto.*

El fin de esta Ordenanza es regular el uso de los locales de jóvenes del territorio municipal.

Principalmente se persiguen los siguientes objetivos mediante la presente Ordenanza:

a) Asegurar que los locales de jóvenes cumplan unas condiciones mínimas, tanto en lo que se refiere a la habitabilidad, higiene y comodidad, como a las medidas de seguridad.

b) Conciliar el uso de los locales de jóvenes con los derechos del vecindario mediante la adopción de las correspondientes medidas correctoras.

c) Reducir el número de problemas que se puedan originar en los locales de jóvenes e impulsar la convivencia.

*Artículo 2. Definición.*

Los locales de jóvenes son locales privados de acceso limitado, que no están abiertos a todo el público y que se suelen encontrar situadas en las plantas bajas de los edificios. La juventud los utiliza como lugar de ocio, de referencia y para relacionarse con la cuadrilla.

*Artículo 3. Ámbito de aplicación de esta ordenanza.*

Esta Ordenanza afecta tanto a los locales que se encuentran en zona residencial de Orio como a los que están en la zona industrial, a los que existen actualmente como a los que se abran en el futuro, por lo que se tendrá en cuenta tanto para la apertura de nuevos como para la adecuación de los existentes.

*Artículo 4. Uso.*

a) Estos son centros asociativos ubicados en planta baja de edificios residenciales en los que no se realiza actividad profesional de baile, canto o música, no tendrán cabida, además, actividades que no tenga relación directa con el ocio juvenil, que sean molestas o estén prohibidas legalmente.

b) Quedan expresamente excluidas de la presente regulación las actividades hosteleras, tales como servicios de bar, café o restaurante en circos, barracas, choznas, txokos gastronómicos.

c) Estará prohibido en estos locales:

c1) Las actividades molestas para el vecindario o que pongan en riesgo la seguridad del edificio.

c2) La instalación de cocina.

c3) Almacenamiento de toda clase de combustibles. Se recomienda no usar combustible para calefactores.

c.4) La compra-venta de cualquier tipo.

*Artículo 5. A quién va dirigida.*

1. Jóvenes: Por medio de esta Ordenanza se pretende mejorar las condiciones en las que se encuentran los locales de jóvenes. Busca que las y los jóvenes conozcan y puedan ejercer sus derechos como personas usuarias e inquilinas. Por otro lado, también deben conocer las obligaciones y responsabilidades que asumen al desarrollar una actividad de este tipo.

2. Vecinas y vecinos: El ruido es el origen principal de los conflictos entre las personas usuarias y la comunidad. La falta de limpieza que se puede producir en torno a estos locales tam-

EK\CV GAO-I-2017-05214

bizikidetzan. Ordenantza honen xedea arazoak saihestea da eta alde bietako eskubideak beteko direla ziurtatzea.

3. Lokalen jabeak: Ordenantza honek gazte lokalen baldintzak arautzen ditu, jabeek alokairu kontratu baten bidez edo legezko beste modu baten bidez gazte lokal gisa erabiltzeko laga ahal izan ditzaten. Lokalen jabeek, hortaz, ordenantza honen berri izan behar dute, honetan zeresana baitute.

*6. artikulua. Lokalek bete beharreko gutxieneko baldintzak.*

Edozein lokal ez da egoki edozein jarduera egiteko, segurtasun eta higiene aldetik gutxieneko baldintza batzuk bete behar baitituzte. Lokal hauek arautze aldera, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

6.1. Azpiegiturak.

a) Argia: Nahitaezkoa da argiaren instalazioa erabiltzeko moduan izatea eta egiaztagiri ofiziala izatea (Industriako Buletina).

b) Ura: Nahitaezkoa da ur-hargune bat izatea, gutxienez, bere kontagailuarekin, garbiketa-lanak eta erabiltzaileen kontsumoa ziurtatzeko.

c) Komuna: Komun-gela izan behar dute eta bertan konketa bat eta komuna izan beharko ditu (gutxieneko 2,00 $m^2$ ko azalera aurreikusten da).

d) Su-itzalgailua: Behar adina balioaniztuneko hautsezko su-itzalgailu eramangarri ipini beharko dira, irteteko edozein puntutik su-itzalgailu batera 15 metro baino gutxiago egoteko moduan jarrita, (21A-113Bko eraginkortasuna dutenak), eta bat CO2-koa, 34Bko eraginkortasuna duena, koadro elektrikoaren alboan.

e) Larrialdietako argiak: Irteera non den seinalatzen duten argiak, eta irteera bera zein den seinalatzen duena behar bezala jarri beharko dira. Horretarako, Eraikinetarako Kode Teknikoan agertzen diren suteen prebentzioaren gaineko argibideak hartuko dira kontuan. Kontuan hartuko da, baita ere, lokalaren tamaina. Larrialdietarako argi bat jarri beharko da gela guztietan.

f) Edukiera: Lokalak zein edukiera duen ezarri beharko da. Horretarako, Eraikinetarako Kode Teknikoan agertzen diren suteen prebentzioaren gaineko argibideak hartuko dira kontuan. Etxabean, erabilera publikoa duen gunean, honela kalkulatuko da: pertsona bat 2 $m^2$ko, gutxi gorabehera. Gehienezko edukiera zein den bistan jarriko da lokalaren barruan.

g) Ateak: Sartzeko eta irteteko ateak 90 cm-ko zabalera eduki behar du, gutxienez. Gainontzeko ateek 80 cm eduki beharko dute, irisgarri-tasunaren gaineko 2000/68 Dekretuaren arabera.

h) Sarrera: Lokalek sarrera egokitua izan behar dute, segurtasun eta irisgarritasun neurriak ziurtatzeko. Lokal hauek kalerako zuzeneko sarbidea izan behar dute eta ezingo dute sarbiderik izan ezkaratzetik.

i) Paretek eta sabaia zarpiatuta egon beharko dute.

j) Gutxieneko neurriak Lokalek, gutxienez, 25 $m^2$ko azalera izango dute eta gutxieneko altuera librea 2,40 m-koa.

k) Lokalek botikina izango dute.

6.2. Lokalaren intsonorizazioa.

Lokalak intsonorizatuta egotea ez da nahitaezko baldintza gisa ezartzen. Hala ere, lokalaren isiltasun ordutegia bere intsonorizazio mailari egokituko zaio.

bién afecta a la convivencia. El objetivo de esta Ordenanza es evitar los problemas y asegurar que los derechos de las diferentes partes se puedan ejercer.

3. Propietarias y propietarios de locales: esta Ordenanza regula las condiciones que deben tener los locales de jóvenes para que los propietarios de las mismas puedan ceder su uso bien mediante un contrato de alquiler o de cualquier otra forma que legalmente proceda para poder ser utilizadas como locales juveniles. Es por ello que las propietarias y propietarios deben conocerla ya que son parte implicada.

*Artículo 6. Condiciones mínimas que deben cumplir estos locales.*

Cualquier local no es adecuado para realizar diferentes actividades, dado que debe cumplir unas condiciones mínimas de seguridad e higiene. Con el objetivo de regular estos locales se deberán cumplir los aspectos que se señalan a continuación.

6.1. Infraestructuras.

a) Luz: es obligatorio que la instalación de luz esté en condiciones adecuadas para su uso y que tenga el certificado de instalación oficial (Boletín de industria).

b) Agua: Es obligatorio que haya por lo menos una toma de agua con su contador para asegurar las labores de higiene y el consumo de las personas usuarias.

c) Baño: deberán disponer de baño dotado como mínimo de lavabo e inodoro (se prevé una superficie mínima de 2,00 $m^2$).

d) Extintor: Se instalarán extintores portátiles contra incendio de polvo polivalente de eficacia 21A-113B en número suficiente para que el recorrido real desde cualquier origen de evacuación hasta un extintor no supere los 15 metros y uno de CO2 de eficacia 34B próximo al cuadro eléctrico.

e) Luces de emergencia: Tanto la señalización hacia la salida como donde se encuentra ésta, así como la de los dispositivos de emergencia estarán adecuadamente colocados siguiendo las indicaciones que sobre prevención de incendios aparecen en el Código Técnico de Edificación. Se tendrá en cuenta el tamaño del local. Habrá una luz de emergencia en todos los habitáculos.

f) Aforo: Deberá fijarse el aforo teniendo en cuenta las indicaciones que sobre prevención de incendios aparecen en el Código Técnico de Edificación. El cálculo aproximado será de 1 persona por 2 $m^2$ en zona de uso público en Planta Baja. Dicho aforo máximo deberá exponerse dentro del local en un lugar visible.

g) Puertas: la puerta de entrada y salida tendrá 90 cm de ancho como mínimo. El resto de las puertas tendrán 80 cm de acuerdo con el Decreto 68/2000 sobre accesibilidad.

h) Entrada: los locales deben de tener entrada adaptada para asegurar las medidas de seguridad y accesibilidad. Estos locales deben tener acceso directo a la calle, y no podrán tener acceso por el portal.

i) Las paredes y techos deben estar raseadas.

j) Medidas mínimas: El local como mínimo deberá tener 25 $m^2$ y una altura libre mínima de 2,40 m.

k) Deberá tener botiquín de primeros auxilios.

6.2. Insonorización del local.

No se establece el requisito de la insonorización como condición mínima a tener por los locales. No obstante, los horarios de silencio de los mismos se adecuarán a los niveles de insonorización de que dispongan.

EK\CV GAO-I-2017-05214

Udalak instalazioak ikuskatu ahal izango ditu, baldintzak betetzen dituztela ziurtatzeko, eta, beharrezko balitz, neurri zuzentzaileak ezartzeko.

*7. artikulua. Bizitegi-zonakoak ez diren lokalen kokapenaren gaineko baldintza bereziak.*

Bizitegi-zonakoak ez diren lokalen araubideari dagokionez, plangintzan aurreikusitakoa izango da kontuan, eta, bestela, ordenantza honetan aurreikusitakoa; baldin eta lokal horien ondorioz pertsonei edo ondasunei arazoak sortzeko edo ingurumenari kalte egiteko arriskua badago.

*8. artikulua. Asegurua.*

Erantzukizun zibileko asegurua eduki behar du lokalak. Gutxieneko estaldura 100.000 €-koa izango da. Aseguruak erabiltzaileak eta haien ondasunak babestu behar ditu, edozer gertatuta ere; hirugarrenek ere babes bera izango dute.

*9. artikulua. Kontratua.*

Lokalek alokairu kontratua edo erabiltzeko lagapenaren kontratua izan behar dute, jabeek eta erabiltzaileek izenpetua. Adingabeen kasuan, haien ardura dutenek izenpetuko dute.

## II. KAPITULUA

## EKIPAMENDUA ETA HIGIENE ETA OSASUN BALDINTZAK

*10. artikulua. Aplikagarritasun orokorra.*

Kapitulu honetan jasoko diren baldintza eta neurri zuzentzaile guztiak arau orokorrak izango dira, eta ordenantza honen mendean gelditzen diren lokal guztietan bete beharko dira.

*11. artikulua. Zaratak eragindako eragozpenak saihesteko neurriak.*

Lokala etxebizitza baten etxabean kokatuta badago, irizpide hauek izan beharko dira kontuan zarata kontrolatzeko:

a) Irratia, telebista, hari musikala eta musika ekipamenduak erabili ahal izango dira, potentzia handikoak izan ezik. Guztiek bete beharko dute honako dekretuan ezarritakoa: 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa.

b) Ingurukori etxebizitzetan, ate eta leihoak itxita daudenean, zarata mailak ezingo ditu Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan ezarritakoa gainditu. Soinu mugen neurketak horretarako baimendutako enpresek egingo dituzte, ezarritako prozedura jarraituz.

c) Arazoak ekiditeko, orokorrean ez da ezkaratz bakoitzeko lokal bat baino gehiago irekiko. Lehendik dauden lokalak mantendu ahalko dira, nahiz eta ezkaratz bakoitzeko bat baino gehiago egon, betiere ordenantza honetan ezarritako betekizunak betetzen badituzte.

d) Gaueko 22:00etatik aurrera lokalaren sarreran gazteak ez pilatzea aholkatzen da.

*12. artikulua. Ordutegia.*

Ondoko ordutegiek izaera orokorra dute. Hala ere, isiltasuna gordetzeko ordutegiak lokalen intsonorizazio-mailaren arabera egokituko dira.

Hiru ordu-tarte desberdin bereizten dira:

Egunez: 10 ordu. 9:00etatik 19:00etara.

Arratsaldez: 4 ordu. 19:00etatik 23:00etara.

Gauez: 10 ordu. 23:00etatik 9:00etara.

Soinu maila bi tokitan neurtuko da: etxebizitzako egongelan eta logelan, eta onartutako dezibel-maila ondoko koadroan zehazten dena izango da:

El Ayuntamiento podrá inspeccionar las instalaciones para asegurar que cumplen los requisitos establecidos y en caso necesario aplicar medidas correctoras.

*Artículo 7. Condiciones específicas de emplazamiento en zonas no residenciales.*

El régimen de los locales en zonas no residenciales, se sujetará a lo previsto en el planeamiento y, en su defecto, en la presente Ordenanza, en la medida que fueran susceptibles de causar molestias o producir riesgos a las personas o bienes, así como originar daños al medio ambiente.

*Artículo 8. Seguro.*

Deben tener un seguro de responsabilidad civil con una cobertura mínima de 100.000 € que proteja a las personas usuarias y sus pertenencias ante cualquier hecho que ocurra en él, así como a terceros.

*Artículo 9. Contrato.*

Todo local debe tener un contrato de alquiler o de cesión de uso firmado entre la propiedad y las personas usuarias. En caso de menores lo firmarán sus responsables.

## CAPÍTULO II

## EQUIPAMIENTO Y REQUISITOS HIGIÉNICO-SANITARIOS

*Artículo 10. Aplicabilidad general.*

Las medidas correctoras y requisitos contenidos en este Capítulo tienen el carácter de reglas generales de aplicación a todos los locales afectados por esta Ordenanza.

*Artículo 11. Medidas para evitar las molestias ocasionadas por el ruido.*

En el caso de que un local de jóvenes esté situado en la planta baja de una vivienda, ésta deberá tener en cuenta los siguientes criterios en cuanto a control de ruidos se refiere:

a) Se podrán utilizar radios, televisiones, hilo musical y equipos de música, excepto los de gran potencia. Estos deberán cumplir lo establecido en el Decreto 213/2012, de 16 de octubre, de contaminación acústica de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

b) En las viviendas cercanas con puertas y ventanas cerradas los niveles de ruido no superarán lo establecido en el Decreto 213/2012, de 16 de octubre, de contaminación acústica de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Las mediciones de ruido se realizarán por las empresas acreditadas para ello, siguiendo el procedimiento establecido.

c) Para evitar problemas en las comunidades no se abrirán más de un local de jóvenes por portal. Se podrán mantener los locales ya existentes aún cuando haya más de uno por portal, siempre y cuando cumplan los requisitos establecidos en la presente Ordenanza.

d) Se recomienda evitar la concentración de jóvenes en la entrada del local a partir de las 22:00.

*Artículo 12. Horario.*

Los siguientes horarios tienen carácter general. Los horarios de silencio se determinaran en base al nivel de insonorización de los locales.

Se diferencias tres periodos de horas:

Día: 10 horas. Desde las 9:00 a las 19:00.

Tarde: 4 horas. Desde las 19:00 a las 23:00.

Noche: 10 horas. Desde las 23:00 a las 9:00.

El nivel del sonido se medirá en dos lugares: la sala y la habitación de la vivienda. El nivel máximo de decibelios permitido será el que recoge este cuadro:

EK\CV GAO-I-2017-05214

| Non | Db (egunez) | Db (arratsaldez) | Db (gauez) |
|---|---|---|---|
| Egongelan | 40 | 40 | 30 |
| Logelan | 35 | 35 | 25 |

*13. artikulua. Higiene neurriak.*

a) Lokal bakoitzak higienearen gaineko gutxieneko neurriak izan beharko ditu. Lokala, hortaz, garbiketa errazteko egokituta egon behar da. Lurzoruak, hormek eta sabaiak, bada, leunak eta garbitzeko errazak izango dira.

b) Lokalaren barruan ezingo da zaborrik pilatu zabor-poltsa edo zaborrontzietatik kanpo.

c) Lokalaren kanpoaldeak eta inguruak baldintza higieniko egokiak izan beharko dituzte. Beraz, ez dira botata utziko lokalean egindako jardueraren batean erabilitako gauzak edo bertan sortutako zaborrak.

d) Zaborra kalean dauden udal zaborrontzietan jarri behar da. Zaborra birziklatu egin beharko da.

e) Lokalak aireztatua egon behar du.

III. KAPITULUA

ARAUBIDE JURIDIKOA

*14. artikulua. Lokal berriak irekitzeko eskabideak.*

Eskaera aurkeztu aurretik, kontsulta-idazki bat aurkeztu beharko da, bidezko diren datu guztiak zehaztuta, Udalak kasu bakoitzean zer betekizun bete behar diren adieraz dezan. Kontsulta hori doakoa izango da.

1. Eskaera orria alkate-presidenteari zuzenduko zaio, eta bertan ondoko datuak adierazi beharko dira:

— Eskatzailearen izen-abizenak, nortasun agiri nazionalaren zenbakia edo identifikazio fiskalerako zedula, helbidea eta telefonoa.

— Lokalaren ardura duen pertsona/en izen-abizenak, eta harremanetarako telefonoa. Adingabeak izanez gero, gurasoen edo tutoreen baimena egiaztatzen duen agiria.

— Lokalaren kokalekua eta deskribapena: kalea eta zenbakia, guztizko azalera eta atalkakoa (komun-gelak, biltegia...). Segurtasun neurriak jarrita dauden guneen plano zehatza.

— Lokalaren jabearen datuak: izen-abizenak eta telefonoa.

— Lokalaren jabetza egiaztatzen duen dokumentua edo alokairuaren kontratua.

— Erantzukizun zibileko aseguruaren kopia. Eskabidea lokalaren lehenengo erabilerarako denean, erantzukizun zibileko aseguruaren aurrekontua aurkeztu beharko da. Azkenean erabilera baimena ematen baldin bada, astebeteko epean aurkeztu beharko da erantzukizun zibileko aseguruaren kopia.

— Su-itzalgailua erosi izanaren eta mantentze zerbitzuaren ordainagiriaren kopia.

— Edukiera.

— Lokaleko zarata-igorleak eta neurri zuzentzaileak. Bere kasuan, behar bezala egiaztatutako lokalaren intsonorizazio maila(isiltasun eta itxiera ordutegiak ezartzeko).

— Barne araudia.

*15. artikulua. Lokal berriak ireki ahal izateko edo gaur egun erabiltzen diren lokalen egoera arautzeko prozedura.*

a) Lokal bat ireki aurretik edo arauzko baimenik gabe gaur egun hala erabiltzen diren lokalen egoera erregularizatzeko, gazteek aurreko artikuluan jasotako dokumentazioa aurkeztu behar dute udaletxean.

| Donde | Db (día) | Db (tarde) | Db (noche) |
|---|---|---|---|
| Sala | 40 | 40 | 30 |
| Habitación | 35 | 35 | 25 |

*Artículo 13. Medidas de higiene.*

a) Cada local debe mantener unas medidas de higiene mínimas. Es por ello que el local debe estar adecuado para facilitar la limpieza, por lo que el suelo, paredes y techos deberán revestirse con elementos lisos y de fácil limpieza.

b) No se puede acumular basura dentro del local fuera de bolsas o contenedores.

c) El exterior del local y sus inmediaciones, tendrán que estar en condiciones higiénicas adecuadas, debiendo evitarse el abandono de objetos o basuras derivadas de alguna actividad del local.

d) La basura debe depositarse en los contenedores exteriores municipales y deberá procederse al reciclado de la misma.

e) Debe garantizarse la ventilación del local.

CAPÍTULO III

RÉGIMEN JURÍDICO

*Artículo 14. Solicitud de apertura de nuevos locales.*

Con carácter previo a la presentación de la solicitud, se deberá presentar un escrito de consulta con todos los datos que resulten pertinentes, al objeto de que el Ayuntamiento informe previamente de los requisitos a cumplir en cada caso. Dicha consulta será gratuita.

1. La solicitud se formulará mediante instancia, dirigida a la Alcaldía-Presidencia, en la que se hagan constar los siguientes datos:

— Nombre y apellidos de la persona solicitante, número de su Documento Nacional de Identidad o Cédula de Identificación Fiscal, su domicilio y teléfono.

— Nombre y apellidos de la/s persona/s responsables del local y un teléfono de contacto. En caso de menores, documentación acreditativo de la aprobación de las madres/padres o tutores.

— Emplazamiento y descripción del local: calle y número, superficie total y parcial (baños, almacenes...), plano y detalle de los lugares donde están instaladas las medidas de seguridad.

— Datos de la persona propietaria: nombre, apellidos y teléfono.

— Documento que acredite la propiedad o contrato de arrendamiento del local.

— Copia del seguro de responsabilidad civil. En caso de solicitud de primer uso del local, presupuesto del seguro de responsabilidad civil. Una vez inscrita la lonja, deberá presentarse la copia del seguro de responsabilidad civil en el plazo de una semana.

— Copia del recibo de compra del extintor y del contrato de mantenimiento.

— Aforo.

— Emisores de ruido del local y las medidas correctoras. En su caso, grado de insonorización del local debidamente acreditado.(para establecer los horarios de silencio y cierre).

— Reglamento interno.

*Artículo 15. Procedimiento para la apertura de nuevos locales o para regular la situación de los que ya se encuentran en uso.*

a) Antes de abrir un local o para la regularización de la situación de los locales que ya encuentran en uso sin la correspondiente licencia, los y las jóvenes deben presentar en el Ayuntamiento la documentación señalada en artículo anterior.

EK\CV GAO-I-2017-05214

b) Lokala erabili ahal izateko baimena lortzeko aurkeztu den dokumentazioa eskatutakoa izan ezean, hamar eguneko epea emango da akatsa zuzentzeko. Eskatutako dokumentazioa adierazitako epean aurkezten ez baldin bada, eskaera bertan behera utziko da eta artxibatu egingo da.

c) Lokalek ordenantza honetan ezarritako baldintzak betetzen dituztela egiaztatuta, bertako auzotarrei horren berri emango zaie, eta hogei (20) eguneko epea emango zaie alegazioak aurkezteko.

d) Aurkeztutako alegazioak ikusi ostean, lokalak ordenantzan ezarritako baldintzak betetzen baditu, horretarako sortutako erregistroan inskribatuko da, eta gazte interesdunei horren berri emango zaie.

e) Bestalde, Udalak neurri zuzentzaileak eskatu ahal izango dizkie gazteei edo lokala gazte lokal gisa zergatik ezin den erabili jakinaraziko die. Jakinarazpena hilabeteko epean egin beharko du Udalak, dokumentazioa aurkeztu zenetik, edo, dokumentazio osagarria eskatu bazen, dokumentazio hori aurkeztu zenetik zenbatzen hasita.

f) Bizilagun eta gazte lokalen erabiltzaileen arteko gorabeherak konpontzeko, Udalak protokolo dokumentuaren zirriborroaren ale bat izango du. Bere erabilera hautazkoa izango da parte hartzen duten alderdientzat.

*16. artikulua. Erregistratu gabeko lokalak.*

Izan daitezkeen bestelako zigorrei uko egin gabe, lokal batek ordenantza honetan ezarritako baldintzak ez dituela betetzen jakinez gero, honako neurri hauek hartuko dira:

a) Lokala erregularizatzeko modukoa baldin bada, titularrei eskatuko zaie beren egoera erregulariza dezatela; horretarako, gehienez ere, hiru hilabeteko epea emango zaie, behar bezala justifikatutako kasuetan izan ezik. Horrez gain, lokala itxi ahal izango da, egokitzat jotzen baldin bada, interesdunei entzunaldia eskaini ondoren. Lehendik dauden lokaletan, egokitzeko epea urtebetekoa izango da.

b) Ezinezkoa baldin bada, ordenantza hau edo gainontzeko udal araudia betetzen ez dituelako, lokala itxi egin beharko da; hala ere, interesdunei entzunaldia eskainiko zaie.

IV. KAPITULUA

DIZIPLINAZKO ARAUBIDEA

*17. artikulua. Arau-hausteak.*

Ordenantza honen aurka egindako arau hausteak oso larriak, larriak edo arinak izango dira.

17.1. Arau-hauste arinak:

a) Isiltasuna gordetzeko ordutegia ez betetzea.

b) Higiene neurriak ez betetzea.

c) Ordenantza honetan berariaz falta larritzat edo oso larritzat jo ez diren arau-hausteak.

17.2. Arau-hauste larriak:

a) Isilean gordetzea datuak eta, eskatzen zaizkienean, ez ematea.

b) Udalari ikuskapen-lana egin dezan eragoztea, modu aktibo edo pasiboan, edo ezezkoa ematea.

c) Udalak ikusitako gabeziak zuzentzeko ezarri dituen betekizunak berariaz aldatzea.

d) 12 hilabeteetan hiru falta arin baino gehiago egitea.

b) En caso de que la documentación presentada no sea la exigida, se concederá un plazo de diez días para su subsanación. En caso de no presentarse en el plazo señalado la documentación requerida, se entenderá por desistida la solicitud y se procederá al archivo de la misma.

c) Una vez comprobado que la documentación reúne los requisitos exigidos en la presente Ordenanza, se informará de ello a las vecinas y vecinos colindantes y se abrirá un plazo de (20) días para la presentación de alegaciones.

d) Vistas las alegaciones presentadas, si el local cumple las condiciones exigidas por la Ordenanza, se procederá a su inscripción en el registro que se cree al efecto, notificándose así a los y las jóvenes interesadas.

e) Por el contrario, Ayuntamiento podrá exigir a los/as jóvenes las medidas correctoras o hacerles saber por qué el local de jóvenes no se puede utilizar como tal. Esta notificación la deberá hacer el Ayuntamiento en el plazo de un mes después de haberse presentado la documentación, y en el caso de haberse requerido una documentación complementaria, desde el momento de la presentación de ésta.

f) El Ayuntamiento, contará con un borrador de un documento de Protocolo al objeto de poder resolver las diferencias entre los vecinos y los usuarios de los locales. El uso del mismo será potestativo para las implicadas.

*Artículo 16. Locales sin registrar.*

Sin perjuicio de las sanciones que pudieran darse, cuando se tenga conocimiento de que un local funciona sin acomodarse a lo establecido en la presente Ordenanza, se efectuarán las siguientes actuaciones:

a) Si el local pudiese regularizarse, requerirá a los/as titulares del mismo para que regularicen su situación, concediéndoles al efecto un plazo que, salvo casos excepcionales debidamente justificados, no podrá ser superior a tres meses, pudiendo además clausurarlo, si las circunstancias lo aconsejaran, previa audiencia de los interesados. En los locales ya existentes el plazo para su adecuación será de 1 año.

b) Si el local no pudiera regularizarse por incumplimiento de esta ordenanza o demás normativa municipal, deberá procederse a su clausura, previa audiencia de los interesados.

CAPÍTULO IV

RÉGIMEN DISCIPLINARIO

*Artículo 17. Infracciones.*

Las infracciones a esta Ordenanza se clasificarán en muy graves, graves y leves.

17.1. Constituye infracción leve:

a) El incumplimiento de los horarios de silencio.

b) El incumplimiento de las medidas de higiene.

c) Cualquier infracción a las normas de la presente Ordenanza no clarificada expresamente como falta grave o muy grave.

17.2. Constituye infracción grave:

a) La omisión de datos y la negativa a facilitar los que sean requeridos a titulares de actividad.

b) La obstrucción, activa o pasiva, o la negativa a la labor inspectora del Ayuntamiento.

c) La alteración expresa de los requerimientos municipales para la corrección de las deficiencias observadas.

d) La comisión de más de tres faltas leves en el plazo de 1 año.

EK\CV GAO-I-2017-05214

e) Ordenantza honetan eta aplikagarri den gainerako araudian ezarritakoaren aurka doan edozein jardun edo ez-egite.

17.3. Arau-hauste oso larriak:

a) Hamabi hilabetean arau-hauste larri bat baino gehiago egitea.

*18. artikulua. Preskripzioa.*

Ordenantza honetan aipatzen diren arau-hausteak epe hauetan preskribatuko dira:

— Arau-hauste oso larriak hiru urteren buruan preskribatuko dira, larriak bi urteren buruan eta arinak sei hilabeteren buruan.

— Falta oso larriengatik jarritako zehapenak hiru urteren buruan preskribatuko dira, falta larriengatik jarritakoak bi urteren buruan eta falta arinengatik jarritakoak urtebeteren buruan.

*19. artikulua. Zehapenak.*

a) Arau-hauste oso larriak:

— Gehienez 3.000 € edo horren balioko lan komunitarioak burutzea.

— Arau-haustea egin duten gazteek beste lokal bat okupatzeko debekua ere ezar daiteke isunaz gain (urte betez).

b) Arau-hauste larriak:

— Gehienez 1.500 € edo horren balioko lan komunitarioak burutzea.

— Arau-haustea egin duten gazteek beste edozein lokal okupatzeko debekua ere ezar daiteke isunaz gain (gehienez, hiru hilabete).

c) Arau-hauste arinak:

— Gehienez 750 € edo horren balioko lan komunitarioak lanak burutzea.

— Arau-haustea egin den gazte lokala okupatzeko debekua (gehienez astebete).

Lokala behin betiko itxi ahal izango da salbuespen gisa. Halako neurri edo zehapenik hartu aurretik, erantsitako protokoloa aplikatu dela bermatuko da, eta baita artikulu honetan ezarritako zehapenak aplikatu direla ere. Lokala ixteko zigorra, aipatutako lokalaren jabeak ordenantza honetan xedatutakoa betetzen ez badu aurreikusten da.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

LOKALEN ETA ERABILTZAILEEN ERREGISTROA

a) Udalak herriko lokalen erregistroa izango du, ordenantza honen bidez lortutako datuez baliatuta.

b) Lokalek segimendua izango dute eta martxan ez dauden lokalei baja emango zaie, edo, lokalean aldaketaren badago, jakinarazi egingo da.

c) Udalak bitartekari lanak egingo ditu sor daitezkeen gatazketan. Dena den, beti emango zaie lehentasuna aldeek hartutako erabakiei.

d) Gazte bulegoak informatuta edukiko ditu beti lokaletako gazteak.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

IKUSKATZEA ETA KONTROLATZEA

1. Lokalak urtero ikuskatuko dira, zein egoeratan dauden ikusteko, eta lokalen zerrenda eguneratuta edukitzeko.

2. Udalaren eskumenekoak izango dira ordenantzan ezarritakoa benetan betetzen dela egiaztatzeko funtzioak. Era

e) Cualquier otra actuación u omisión que contravenga lo señalado en la presenta Ordenanza y demás normativa que resulte de aplicación.

17.3. Constituye infracción muy grave:

a) La reincidencia en infracciones graves en el plazo de doce meses.

*Artículo 18. Prescripción.*

Las infracciones y sanciones recogidas en esta Ordenanza prescribirán de acuerdo a los siguientes parámetros:

— Las infracciones muy graves prescribirán a los tres años, las graves a los dos años, y las leves a los seis meses.

— Las sanciones impuestas por faltas muy graves prescribirán a los tres años, las impuestas por faltas graves a los dos años y las impuestas por faltas leves al año.

*Artículo 19. Sanciones.*

a) Para las infracciones muy graves:

— Hasta 3.000 € o trabajos para la comunidad equivalentes a ese importe.

— Imposibilidad de ocupar cualquier local por parte de los jóvenes que han cometido la infracción (1 año).

b) Para las infracciones graves:

— Hasta 1.500 € o trabajos para la comunidad equivalentes a ese importe.

— Imposibilidad de ocupar cualquier local por parte de los jóvenes que cometido la infracción por un período máximo de tres meses.

c) Para las infracciones leves:

— Hasta 750 € o trabajos para la comunidad equivalentes a ese importe.

— Imposibilidad de ocupar el local para jóvenes donde han cometido la infracción por un período máximo de una semana.

Se podrá clausurar el local de manera definitiva como manera excepcional. Previo a la toma de decisión de dicha medida se garantizará la aplicación del protocolo anexo así como la aplicación de las sanciones contempladas en éste artículo. La sanción de clausura del local se prevé para los supuestos en que el propietario del mismo no cumpla los requisitos exigidos en la presente Ordenanza.

DISPOSICIÓN ADICIONAL PRIMERA

REGISTRO DE LOCALES Y PERSONAS USUARIAS

a) El Ayuntamiento desarrollará un registro de locales de jóvenes basándose en los datos que obtenga por medio de esta Ordenanza.

b) Se realizará un seguimiento de los locales de jóvenes, para dar de baja a los locales que ya no funcionan o comunicarlo en caso de que haya algún cambio.

c) El Ayuntamiento desarrollará la función de mediación en los posibles conflictos que puedan surgir, siempre dando prioridad a los acuerdos que establezcan las partes.

d) Por medio del Departamento de Juventud se dará información a las y los jóvenes de los locales.

DISPOSICIÓN ADICIONAL SEGUNDA

INSPECCIÓN Y CONTROL

1. Anualmente se inspeccionará la situación de los locales con el fin de mantener actualizada la relación de los mismos.

2. Serán competencia municipal las funciones a desarrollar para el efectivo cumplimiento de lo dispuesto en la orde-

EK\CV GAO-I-2017-05214

berean, Udalak beharrezko ikuskapenak egiteko ahalmena izango du. Alkateak edo, hala badagokio, Hirigintzako zinegotzi ordezkariak eskumena izango dute beharrezko neurriak hartzeko, funtziook bermatuak izan daitezen.

3. Lokalen baten funtzionamenduan akatsak daudela ikusiz gero, lokaleko ordezkariari eskatuko zaio akatsak zuzen ditzala, eta, horretarako, epe jakin bat emango zaio. Epe hori ez da izango hiru hilabetetik gorakoa, behar bezala justifikatutako kasuetan izan ezik.

4. Ikuskapen bisita bat egiten den bakoitzean, arauen aurka joan daitezkeen ekintzak azaltzeko akta egin beharko da. Aktan, ekintza horien erantzuleak egiten dituen alegazioak jaso beharko dira. Akta horiek ziurtasun-presuntzioa eta froga-balioa izango dute. Horretaz gain, kontuan izango dira administratuek beren interesak babesteko aurkezten dituzten gainerako frogak ere.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Urtebeteko epea izango da, ordenantza hau indarrean sartzen den egunetik zenbatzen hasita, gaur egun zabalik dauden eta gazteen aisialdirako lokal gisa funtzionatzen ari diren lokalak egokitzeko eta ordenantza honetan eskatzen den dokumentazio guztia aurkezteko. Ordenantza hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 15 egun igaro ondoren sartuko da indarrean.

ERANSKINAK (1)

ADOSTUTAKO ELKARBIZITZARAKO PROTOKOLOA

Helburua: lokalen fenomenoaren inguruko elkarbizitza irizpideak arautu eta exekutatzea. Era berean, fenomeno honek sor ditzakeen gertakari eta elkarbizitza arazo ezberdinak detektatu, bideratu eta konpontzen saiatzea.

Erabilera: Egunerokotasunean, lokalak kudeatzeko. Gatazken aurrean eta desadostasunak daudenean ere tresna erabilgarria izango da.

Protokolo honetako partaide eta ordezkariak:

1. Gazte lokalen kasuan, lokal bakoitzeko bi ordezkari izendatuko dira, lokalen erregistroan jasota egongo den moduan, kontakturako telefonoak utzita. Adin txikiko gazteak dituzten lokaletan, gazte bat eta guraso edo tutore bat izendatuko dira arduradun bezala.

2. Bizilagunei dagokienez, inplikatuta dauden bizilagunak izango dira ordezkariak.

3. Lokaleko jabea. Arazo edo molestiak sortzen diren kasuetan lokaleko jabea ere deitua izango da honen kudeaketa eta konponbidean partaide izan dadin.

4. Udala. Gertaerak hala eskatzen duenean, Udaltzaingoak eta Gazteria departamenduak ere parte hartuko dute arazo/molestiaren kudeaketan.

Ohiko harremana: Gazteria Zerbitzuan lokalen erabileraren inguruko bizikidetza gertakarien berri jaso eta konstantzia iraunkorra izango da.

Bizilagunen kexen kasuan, protokoloa edo funtzionamendu eskema hauxe litzateke:

— Kexa bizilagun eta erabiltzaileen artean modu zuzenean eta momentuan bertan komunikatzea izango da lehentasunezko jokaera; momentuan eta modu zuzenean balizko arazoa konpontzeko aukera eskainiz.

— Bizilagunek Udaltzaingoari kexa bideratuta, udaltzainak bertaratu eta lokaleko kideei kexaren berri emango liekete. Beharrezkoa suertatzen den kasuetan soinu neurketak egingo ditu Udaltzaingoak.

— Bizilagunek kexa udal erregistrora bideratuko dute.

nanza, así como para realizar las debidas inspecciones, hallándose facultados el Alcalde o en su caso el/la Concejal/a Delegado/a de Urbanismo para adoptar las medidas necesarias con el objeto de garantizar tales funciones.

3. Advertidas deficiencias en el funcionamiento del local, se requerirá al/a la representante del mismo para que corrija aquéllas en un plazo determinado que, salvo casos especiales debidamente justificados, no podrá ser superior a tres meses.

4. De toda visita de inspección se levantará un acta descriptiva de los hechos que puedan ser motivo de irregularidad, acta en la que se harán constar las alegaciones que formule el/la responsable de aquéllos. Estas actas gozarán de la presunción de certeza y valor probatorio, sin perjuicio de las demás pruebas que, en defensa de los respectivos intereses, puedan aportar los administrados.

DISPOSICION TRANSITORIA

Los locales que actualmente estén abiertos y funcionando como locales de ocio de jóvenes tienen un plazo de un año a partir de la entrada en vigor de la presente Ordenanza, para acondicionarlos y aportar la documentación exigida en la misma. Esta Ordenanza entrará en vigor una vez transcurridos 15 días a partir de su publicación en el Boletin Oficial de Gipuzkoa.

ANEXOS (1)

PROTOCOLO DE CONVIVENCIA CONSENSUADO

Objetivo: regular y ejecutar los criterios de convivencia en relación con el fenómeno de los locales. Asimismo, detectar, canalizar e intentar resolver los diversos hechos y problemas de convivencia que puedan surgir.

Uso: gestión cotidiana de los locales. Será, asimismo, una herramienta útil ante cualquier conflicto y desacuerdo.

Miembros y representantes de este protocolo:

1. En el caso de los locales de jóvenes se nombrarán dos representantes por cada local, que constarán en el registro de locales junto con sus teléfonos de contacto. En los locales de menores de edad se designarán como responsables a un o una joven y a un padre, madre o persona tutora.

2. En cuanto al vecindario, la representación estará integrada por el vecindario implicado.

3. Propietario/a del local. Si surgen problemas o molestias se convocará también al propietario o propietaria del local para que participe en su gestión y resolución.

4. Ayuntamiento. Cuando así lo exijan los hechos, también participarán en la gestión de los problemas/molestias la Policía Municipal y el Departamento de Juventud.

Relación ordinaria: El Servicio de Juventud tendrá conocimiento y testimonio permanente de los hechos que acontezcan en relación con la convivencia en el uso de los locales.

En el caso del vecindario, el esquema del protocolo o del funcionamiento será el siguiente:

— La pauta prioritaria de actuación será la de comunicar al vecindario y a las personas usuarias, directamente y en el momento, la queja o el problema, así como sus posibles soluciones.

— Trasladada la queja del vecindario a la Policía Municipal, ésta se personará en el lugar y la comunicará a las personas usuarias del local. En los casos en que sea necesario, la Policía Municipal efectuará las mediciones de sonido oportunas.

— El vecindario presentará su queja en el Registro Municipal.

EK\CV GAO-I-2017-05214

Gazteria Zerbitzuak bizikidetzarako neurrien aholkularitzarako gune gisa funtzionatuko du.

Elkarbizitza arazo errepikatuak sortzen diren kasuetan, honako protokoloa abiatuko da:

1. Kexarekin Gazteria Zerbitzutik jakinarazpen gutuna helaraziko zaie aldeei: lokaleko ordezkariei, bizilagunari eta lokalaren jabeari edo/eta adin txikiko gurasoei.

2. Kexarekin Bizikidetza Mahaia aktibatuko da, arazoa aztertu eta aldeen arteko konponbideak bideratzeko helburuarekin.

Mahai hau horrela egongo da osatuta:

— Lokaletako ordezkariak (erabiltzaileak adin txikikoak diren kasuetan euren guraso edo tutore ordezkariak).

— Bizilagun inplikatuak.

— Lokalaren jabea.

— Udaltzain burua, Gazteria saileko teknikaria eta Gazteriako zinegotzia.

Protokolo mahai honen jardunak fruiturik emango ez balu, Orioko Udalaren esku geratuko litzateke azken erabakia.

Orio, 2017ko uztailaren 10a.—Jose Angel Zaldua Iparraguirre, alkatea. (5214)

El Servicio de Juventud funcionará como centro de asesoramiento de las normas de convivencia.

En los casos en que haya reiteración de problemas de convivencia se procederá conforme al siguiente protocolo:

1. La queja será notificada por el Servicio de Juventud a las partes implicadas: a la representación del local, al vecindario, al propietario/a del local y/o a los padres o madres de los y las menores de edad.

2. Con la segunda queja se activará la Mesa de Convivencia para estudiar el problema y solucionarlo entre las partes implicadas.

Composición de la mesa:

— Representantes de los locales (si las personas usuarias son menores de edad, sus padres, madres o personas tutoras).

— Vecindario implicado.

— El o la propietaria del local.

— La Jefatura de la Policía Municipal, el técnico o técnica de Juventud y el concejal o concejala de Juventud.

Si la actuación de la mesa de protocolo no diese frutos, la decisión última la adoptaría el Ayuntamiento de Orio.

Orio, a 10 de julio de 2017.—El alcalde, Jose Angel Zaldua Iparraguirre. (5214)

EK\CV GAO-I-2017-05214